



KOBRE- TXIMELETA HANDIA

Lycaena dispar

TAMAINA

34 - 40 mm

ITXURA

Pinpirin laranja horrek gibekeko hegaldaren behealde gris urdinxka du.

Emeak arrak baino handiagoak dira. Aitzineko hegaletan puntu beltzeko lerro bat dute. Arrek, berriz, lerro beltz bat dute gibekeko hegaldaren goiko aldean.

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

- > Maiatzetik irailera
- > Aro eguzkitsuetan

NON?

- > Zelai hezeguneetan



Kobre-tximeleta arrunta edo Kobre-tximeleta urrekarekin nahas daiteke.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

10 egun helduentzat

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Beldarrak mingarritz hostoak jaten ditu. Helduek menda, erreka-belarra, orrotxeta eta kukuso-belarraren loreak xurgatzen dituzte.

Kobre-tximeleta handiak bi belaunaldi ditu urtean (gutxitan hiru).

Ugalketaren ondotik, arraultzak mingarritzen gainean jarriak dira.

Negua iristen delarik, beldarra bizi geldian sartzen da, apirilaren erdialdean berriz ateratzeko. 10-15 egun behar ditu helduz itxuraldatzeko.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Kobre-tximeletaren gainbeheraren arrazoi guzien puntu komuna da hezeguneak kaltetzen dituela.

Pinpirin horrek esplorazio gaitasun handiak baditu ere, populazioen arteko zirkulazio korridoreen atxikitzeak, haien arteko nahaste eraginkorra bermatzen du. Kudeaketa neurri nagusia larre hezeak, drainadura, urbanizazioa, laborantza intentsiboa eta zuhaitzen landatzetik babestea da. Gune ezagunetan, belarra berantago edo lekuka moztea gomendatzen da.